

**ENERO 2016**

**EUSKO  
BAROMETRO**

Estudio periódico de la  
opinión pública vasca



**HAUTESKUNDE ESTIMAZIOA**

**EUSKO LEGEBILTZARRA**

## **ONDORIO NAGUSIAK**

✓ **PODEMOS ETA C'S LEHIAN SARTZEAK ALDATU EGITEN DU ORAIN ARTEKO HAUTESKUNDE EGONKORTASUNA, HANDITU EGITEN DU ALDERDI ANIZTASUNA ETA ZERTXOBAIT ZAILTZEN DU GOBERNAGARRITASUNA.**

✓ **HAUTESKUNDE EGOERA GUZTIZ ALDAKOR BATEAN GAUDE, EZAUGARRI HAUEK DITUENA: PARTE HARTZE MODERATUA, ZATIKETA HANDIAGOA, BOTO LEIALTASUNAREN HIGADURA NABARMENA IA HAUTESLERIA GUZTIETAN, ETA ZALANTZAN DAUDENEN KOPURU ADIERAZGARRIA (% 24 INGURUKOA).**

✓ **ESPAINIAKO GOBERNUA ERATZEKO AHALEGINEAN ALDERDIEN ARTEAN IZAN DIREN GORABEHEREK, DENBORAN LUZATUZ DOAN ZIURGABETASUNAK ETA ALDERDI POLITIKO BATZUEN ZERRENDABURU NOR IZANGO DEN EZ JAKITEAK ARE ALDAKORRAGOA EGITEN DUTE EGOERA.**

✓ **PARTE HARTZEA % 67 INGURUKOA IZANGO LITZATEKE, DUELA LAU URTEKOA BAINO ZERTXOBAIT HANDIAGOA.**

✓ **ZATIKETA ETA ALDAKORTASUNA EZAUGARRI DITUEN EGOERA HORRETATIK LEGEBILTZAR ANITZAGO ETA ZATIKATUAGO BAT SORTUKO DA, EZKERREKO ALDERDIEI DAGOKIENEZ BATIK BAT.**

✓ **LEHEN ALDIZ, ALDE BATERA UTZIRIK 2009KO EGOERA BEREZIA, ALDERDI ABERTZALEEK EZ DUTE GEHIENGORIK LORTUKO, ETA EZKERREKO ALDERDIAK IZANGO DIRA NAGUSI.**

✓ **PNV*k* HAUTESKUNDEAK BERRIRO IRABAZIKO BADITU ERE, PODEMOS*ek* ZALANTZAN JAR DEZAKE HAREN HEGEMONIA, ETA EPAILE BIHURTUKO DA.**

✓ **PNV*k* BERRIRO IRABAZIKO LITUZKE HAUTESKUNDEAK, 350.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN IA % 30 LORTUTA, BAINA ORAIN DUENA BAINO GEHIENGO PITIN BAT AHULAGOA IZANGO LUKE, ETA NABARMEN ZAILDUKO LUKE HORREK EGUNGO**

**ALDERDI BAKARREKO GUTXIENGOKO GOBERNUA  
ERREPIKATZEA.**

✓ **PNV<sub>k</sub>, GOBERNUAN JARRAITZEKO, EHB, PODEMOS EDO BESTE BI ALDERDI AUTONOMISTEN (PSE-EE ETA PP) BABESA EDO ONESPENA BEHARKO LUKE. BERAZ, AUKERA PROBABLEENA PNV/PSE-EE ITUNA EDO KOALIZIO GOBERNUA DA, AUKERA ZIURRA EZ BADA ERE.**

✓ **BESTE ALTERNATIBA PODEMOS-EHB ITUNA LITZATEKE, NAHIZ ETA PSE-EEren LAGUNTZA BEHARKO LUKETEN GOBERNUA ETA EZKERREKO ALDERDIEN GEHIENGOA ERATZEKO, ETA ZAILA DA HORI GERTATZEA.**

✓ **EZ DA BAZTERTZEKO A ERE PNV-EHB KOALIZIO EDO ITUNA, PODEMOSek BABESTUA, NAHIKO ZAILA BADIRUDI ERE GAUR EGUNGO EGOERAN.**

✓ **PODEMOSek, AZKEN HAUTESKUNDE OROKORRETAN EMAITZA BIKAINAK LORTU ONDOREN, 300.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 25 ESKURATUKO LITUZKE, BIGARREN INDAR BIHURTURIK, JELTZALEENGANDIK OSO HURBIL. BERAZ, AUKERA IZANGO LUKE GOBERNUA OSATZEKO EDO HAREN GEHIENGOA BALDINTZATZEKO.**

✓ **EHB<sub>k</sub>, 180.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 16 LORTUTA, ATZERA EGINGO LUKE HIRUGARREN LEKURA, NAHIZ ETA AUKERA IZANGO LUKEEN GOBERNU ERAKETA BALDINTZATZEKO ETA BAITA HARTAN PARTE HARTZEKO ERE.**

✓ **PSE-EE<sub>k</sub> 150.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 12 ESKURATUKO LITUZKE, ETA LAUGARREN INDARRA IZANGO LITZATEKE LEGEBILTZARREAN. GEHIENGO BERRIA BALDINTZATZEKO EDO GEHIENGO HORRETAN PARTE HARTZEKO MODURA ERE IZANGO LUKE.**

✓ **PP<sub>k</sub> 100.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 9 LORTUKO LITUZKE. NAHIZ ETA BABESA GALDU, GEHIENGO BERRIA BALDINTZATZEKO AUKERARI EUTSIKO LIOKE.**

✓ ***C'S, 40.000 BOTO INGURU ETA BOTO BALIODUNEN % 4 ESKURATUTA, LEGEBILTZARREAN SARTUKO LITZATEKE, UPyDren LEKUA HARTUTA.***

✓ ***PODEMOS ETA C'S LEGEBILTZARREAN SARTZEAK AUKERARIK GABE UZTEN DITU IU/EZKER ANITZA ETA UPyD.***

✓ ***SEI ALDERDIK OSATUTAKO LEGEBILTZAR BERRIAN, LEHEN ALDIZ ABERTZALEEK EZ DUTE GEHIENGORIK IZANGO, ETA EZKERREKO ALDERDIEK GEHIENGO SENDO BAT IZANGO LUKETE. ALDIZ, INDAR AUTONOMISTEK GUTXIENGOAN JARRAITUKO DUTE, PODEMOSen JARRERA IKUSTEKE.***

UPV/EHUKo Politika eta Administrazio Zientzia Saileko EUSKOBAROMETRO lantaldeak Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi begira egin dituen estimazioetatik (urtarrilean eginiko 600 elkarrizketetatik lortutako boto intentziotik eta beste hauteskunde adierazle batzuetatik abiatuta), ondorio hauek atera daitezke:

1. **PNV** izango litzateke berriro garaile une horretan Eusko Legebiltzarrerako eginiko hauteskunde hipotetiko batzuetan. Boto baliiodunen % 29,3 lortuta eta jaitziera txiki batekin, 22-23 eserleku eskuratuko lituzke, eta lehen indarra izango litzateke hiru lurraldeetan.

2. **Podemos**ek hobetu eta sendotu egiten ditu bere aukerak. Boto baliiodunen % 25,2 eta 19-21 eserleku lortuta, bigarren indarra izango litzateke lurralde guztietan, lehia estuan PNVrekin Araban.

3. **EHB koalizioa**k atzera egingo luke hirugarren lekura. Hirugarren indarra izango litzateke Bizkaian eta Gipuzkoan, eta laugarrena, Araban. Boto baliiodunen % 16,3 eskuratuta, 13 eserleku lortzeko moduan egongo litzateke.

4. **PSE-EE**k atzera egingo luke laugarren posiziora, boto baliiodunen % 12,2 eta 8-9 eserleku lortuta. Gobernua eratzeke gehiengo berrian parte hartzeko moduan legoke. Laugarren indarra izango litzateke Gipuzkoan eta Bizkaian, eta bosgarrena, Araban.

5. **PP**k beherantz jarraituko luke, lurralde guztietan, Madrilgo gobernuak eragindako higadurak jota. Boto baliiodunen % 9,4 eta 8-9 eserleku lortuta, bosgarren indarra izango litzateke Eusko Legebiltzarrean. Araban hirugarren indarra izan liteke.

6. **C's** legebiltzarrean sartuko litzateke. Araban eserleku bat ziurtatua edukitzeaz gainera, aukera izango luke eserleku bana eskuratzeko Gipuzkoan eta Bizkaian. Boto baliiodunen % 3,6 eskuratuta, legebiltzarreko seigarren eta azken indarra izango litzateke.

7. **IU/Ezker Anitza** eta **UPyD** Eusko Legebiltzarretik kanpo geldituko lirateke, botoen % 3 inguru lortuta.


8. Batez besteko **parte hartzea** % 67 ingurukoa izango litzateke, duela lau urtekoa baino zertxobait handiagoa, aldaketa handirik gabe lurraldeen artean.

9. Elkarrizketatuen % 70 inguruk diote jada erabakita dutela beren botoa, eta % 24koa da asmo argirik –bozkatzeko edo abstentziorako– adierazi ez dutenen ehunekoa.


10. Aldakortasuna areagotzeak beherakada handi bat eragin du hautesleria guztien **boto leialtasunean**, 2012ko hauteskunderi dagokienez. Hala, boto leialtasuna honako hau da, handienetik txikienera: PNV (% 83), PP (% 71), PSE-EE (% 66) eta EHB (% 65). Erreferentziazat hartzen baditugu abenduko hauteskunde orokorren emaitzak, honako hau da beren boza zein izango den adierazi dutenen leialtasuna: EHB eta PNV dira boto leialena dutenak (% 90 ingurukoa), eta IU eta C's dira leialtasun txikiena dutenak (% 50 ingurukoa); tartean, PODEMOS (% 69), PP (% 75) eta PSE-EE (% 80) daude.

11. Elkarrizketatuen % 69k diote PNVk irabaziko dituela hurrengo hauteskundeak.

## **BOTO BALIODUN ETA ESERLEKU BANAKETAREN ESTIMAZIOAK (%)**



## EUSKO LEGEBILTZARRAREN EGUNGO OSAERA



## ASMO ZUZENA ETA BOTO ETA ESERLEKU ESTIMAZIOA

<b>EAE</b>			
	Asmoa	Estimazioa	
	Zuzena (1)	BB	Eserlekuak
PNV	% 22,3	% 29,3	22-23
Podemos	% 18,7	% 25,2	19-21
EHB	% 13,5	% 16,3	13
PSE-EE	% 7,7	% 12,2	9
PP	% 2,3	% 9,4	8-9
C's	% 0,7	% 3,6	1-3
Beste batzuk eta boto zuria	% 2,4	% 4,0	0

(1) Lagin osoari edo eroldari dagokion ehunekoa

Parte hartzea **hautesleriaren % 67 ingurukoa** izango litzateke.


“Boto asmoa” eta “boto asmoa + begikotasuna” adierazleen datuak iritzi datu zuzenak dira, eta berez ez dute hauteskunde emaitza hipotetikoaren proiektzioari ematen. Ondorioz, estimazioetan, inkestako iritzi datu zuzenei estimazio eredu bat aplikatuz sortzen diren emaitzak adierazten dira. Jakina, datu horiei beste eredu batzuk aplikatzeak beste estimazio batzuk eragin litzake.

Badira esanguratsuak iruditzen zaizkigun beste adierazle batzuk ere euskal hautesleriaren egungo dinamika azaltzeko: batzuek zerikusia dute alderdi politiko nagusien eta haien buruen balorazioarekin; beste batzuek, EAEko eta Espainiako gobernuek eginiko kudeaketa lanaren ebaluazioarekin.

**Lehenik**, herritarrek alderdi politikoek azken hilabeteetan eginiko lanari buruz duten iritziari dagokionez, soilik PNVk eta Podemosek lortzen dute saldo positiboa (+27 eta

+21 puntu, hurrenez hurren), iritzi positiboan (% 40 eta % 33, hurrenez hurren) eta negatiboan (% 13 eta % 12, hurrenez hurren) artean — Podemosek hobera egin du nabarmen; PNVk, neurri txikiagoan —. Aldiz, beste alderdi guztien saldoak negatiboak dira. Txikienetik handienera: EHB -20 puntu (+% 18 eta -% 38); PSE-EE -37 puntu (+% 10 eta -% 47); C's -42 puntu (+% 4 eta -46 %); PP -73 puntu (+3 % eta -76 %). Bestetik, alderdi bakoitzaren hautesleriak eginiko balorazio positiboak hauexek dira, txikienetik handienera: C's % 50, PP eta EHB % 56, PSE-EE % 61, Podemos % 65 eta PNV % 88 (ikus 1. grafikoa).

**Gráfico 1: VALORACIÓN DE LA TRAYECTORIA POLÍTICA DE LOS PARTIDOS EN LOS ÚLTIMOS MESES**




Euskobarómetro, Enero 2016 (Mayo 2015)

**Bigarrenik**, euskal gizarteak zatituta jarraitzen du Iñigo Urkullu buru duen Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa lana baloratzeko orduan, nahiz eta iritzi positiboak (% 34) negatiboak (% 16) hala bi diren. Estankamendu argi bat suma daiteke, aurreko seihilekoko joera aldaketaren ondoren, eszeptikoen edo itzarotea nahiago dutenen nagusitasun batekin (% 46), azkenaldian +5 puntu gora egin dutenak. Iritzi positiboak abertzaleen artean gailentzen dira zertxobait (% 46), eta nagusi dira PNVren boto-emaielen artean (% 78). Aurkako aldean, nabarmentzekoa da EHBren boto-emaielen balorazio negatiboa (% 36) — ikus 2. grafikoa—.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren batez besteko kalifikazioa 5,4 da, eta gainditu egiten du beraz balorazioa. Azken seihilekokoan lortutako nota bera da. Batez besteko nota hori handiagoa da PNVren boto-emaielen artean (6,9), eta 5era iristen da ere PSE-EE eta Podemosen boto-emaielen eta abstentzioaren alde egiten dutenen artean. Aldiz, PPren boto-emaielen nota ez da 5era iristen (4,9), eta EHB eta IU ere atalase horren azpitik daude (4,4 eta 4,3, hurrenez hurren). Gainera, gehiago dira jaurlaritzaren lanari baiespina ematen dioten euskal herritarrak (% 73) gutxiegitzat jotzen dutenak baino, egonkortasun handi batekin seihilekokoan zehar.




**Gráfico 2: VALORACIÓN DEL ACTUAL GOBIERNO VASCO Y NOTA DE SU GESTIÓN**



Euskobarometro, Enero 2016 (Mayo 2015)

**Hirugarrenik**, duela lau urte euskal herritarrek Mariano Raxoiren gobernuarekiko adierazi zuten mesfidantza handia erabateko gaitzespen (% 88) bihurtu da legealdiaren amaieran. Soilik % 4k baloratzen dute positiboki, eta eszeptikoak % 8 dira; balorazio hori oso egonkorra da seihilekoan eta azken lau urteetan. Datuak alderdika aztertuz gero, balorazio positiboa nagusi da berriro ere PPren boto-emaileen artean (% 69), eta gaitzespena ia erabatekoa beste alderdi guztien boto-emaileen artean (ikus 3. grafikoa).

**Gráfico 3: EVOLUCIÓN DE LA VALORACIÓN DEL ACTUAL GOBIERNO DEL PP (2012-2016)**




(\*) La evolución sectorial se refiere a la actual oleada en comparación con la anterior (Mayo 15)  
Euskobarómetro, Enero 16

**Laugarrenik**, buruzagi politikoen balorazioari dagokionez, seihilekoan zehar ia orokorra izan den atzerakada dela-eta (soilik A. Garzónen balorazioak egin du hobera, eta besteek 1-7 hamarreneko galerak izan dituzte), aurreko seihilekoetako ordena berregokitu dugu, batzuen eta besteen arteko desberdintasunak mantenduta ezagutza mailari dagokionez. Oraingoan, Urkullu lehendakaria da aurrena zerrendan, eta 5era iristen da ia-ia (4,9ko nota, azken seihilekoko balorazioari bi hamarren kenduta), 0-10 balorazio eskalan, % 97ko ezagutza mailarekin. Lehendakariarekin parekatuta daude: P. Iglesias (4,9), % 93ko ezagutza mailarekin eta puntuazioan egonkor mantenduta, eta A. Garzón (4,9), ezagutza maila askoz txikiagoarekin (% 65), sei hamarren egin badu ere gora balorazioan seihilekoan zehar. Atzetik datoz: A. Ortuzar (4,6 eta % 58ko ezagutza), A. Harraiz (4,5eko nota, 6 hamarreneko jaitsierarekin, eta % 33ko ezagutza), A. Otegi (4,1 eta % 83ko ezagutza), I. Mendia eta E. Maura (3,7ko nota, % 55eko eta % 13ko ezagutza, hurrenez hurren), P. Sánchez (3,3 eta % 94ko ezagutza), A. Rivera (2,4 eta % 87ko ezagutza), S. Sáenz de Santamaría, A. Alonso eta G. Maneiro (2,1eko nota, % 93ko, % 61eko eta % 37ko ezagutza, hurrenez hurren) eta, azkenik, M. Raxoi (1,2 eta % 98ko ezagutza).


Norberaren hautesleriak hobekien baloratutako buruzagi politikoei dagokienez, honako hau da zerrenda, baloratuenetik hasita: S. Sáenz de Santamaría (7,9), A. Alonso (7,4), A. Otegi (7,3), P. Iglesias (7,1), A. Rivera (7), I. Urkullu (6,8), A. Garzón (6,6), H. Arraiz (6,4), A. Ortuzar (6,2), P. Sánchez (6,1), M. Raxoi (6), I. Mendia (5,7) eta E. Maura (4,6) (ikus 4. grafikoa).

**Gráfico 4: VALORACIÓN DE LOS LÍDERES POLÍTICOS EN EL PAÍS VASCO**



**Bosgarrenik**, puntuazio horiek osatzen baditugu onarpen indizearekin (gutxienez balorazioa gaınditzea lortu dutenen %), I. Urkullu da berriro ere aurrena (% 61), eta P. Iglesias bigarrena (% 58); gehiengoaren onarpena duten bakarrak dira. Atzetik datoz zerrendan: A. Otegi eta A. Garzón (% 41), A. Ortuzar eta P. Sánchez (% 32), I. Mendia (% 23), A. Rivera eta S. Sáenz de Santamaría (% 18), H. Arraiz (% 17), A. Alonso (% 12), M. Raxoi (% 10), G. Maneiro (% 7) eta E. Maura (% 6). Azken seihilekoaren bilakaerari erreparatzen badiogu, aipatzekoa da onarpenak izan duen jaitsiera ia orokorra, I. Urkulluren kasuan bereziki (-5 puntu), honako salbuespen hauekin: A. Otegi (+6 puntu), M. Raxoi (+2 puntu), P. Sánchez eta I. Mendia (+1 puntu) eta, batez ere, A. Garzón (+15 puntu) (ikus 5. grafikoa).


**Gráfico 5: ÍNDICE DE APROBACIÓN DE LOS LÍDERES POLÍTICOS EN EL PAÍS VASCO**



Euskobarómetro, Enero 2016

**Amaitzeko**, elkarrizketatuei eskatu diegu ezker-eskuin eskala ideologikoan kokatzeko bai beren burua bai alderdi politikoak, EAeko hautesleen eta alderdien polarizazio ideologikoaren indizea lortzeko. Hori horrela, euskal hautesleriak zentro-ezkerrean kokatzen du bere burua batez beste (3,9ko balioa 1-10 eskalan), eta elkarrengandik urrutien dauden alderdien (PP eta EHB) boto-emaileen arteko distantzia ideologikoa 4,2 puntukoa da (9 puntu maximo). Horrek % 47ko polarizazio indizea ematen du, polarizazio zentrifugo handiago baterako joerarekin. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzen badugu non kokatzen dituzten hautesleek beren alderdiak, distantzia ia halako bi da (5,7); hots, % 64ko polarizazio indizea, lehia dinamika zentrifugoago bat berresten duena. Hori horrela, PP (+1,2), C's (+1,2), PNV (+0,8) eta PSE-EEren (+0,4) boto-emaileek beren burua baino zentrorago eta eskuinerago ikusten dituzte alderdi horiek; aldiz, Podemos (-0,3), IU (-0,1) eta EHBren (-0,3) boto-emaileek ezkererago kokatzen dituzte beren alderdiak, eta aldakortasun are handiagoa eragin dezake horrek (ikus 6. grafikoa).


**Gráfico 6: UBICACIÓN DE LOS PARTIDOS VASCOS POR SUS VOTANTES Y AUTOUBICACIÓN DE ÉSTOS EN LA ESCALA DE IZQUIERDA / DERECHA (EEGG-15)**



Euskobarómetro, Enero 2016

Bestetik, abertzaletasun-espainolismo eskalan kokatzeko eskatu diegu ere elkarrizketatuei, bai beren burua bai alderdi politikoak, EAeko hautesleen eta alderdien polarizazio identitarioaren indizea lortzeko. Hala, euskal hautesleriak euskalduntasun moderatu batean kokatzen du bere burua batez beste (4,3ko balioa 1-10 eskalan), eta elkarrengandik urrutien dauden alderdien (PP eta EHB) boto-emaileen arteko distantzia identitarioa 6,4 puntukoa da (9 puntu maximo). Horrek % 71ko polarizazio indizea ematen du, dimentsio ideologikoan lortu duguna baino askoz handiagoa. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzen badugu non kokatzen dituzten hautesleek beren alderdiak, distantzia handiagoa da (7,4), eta horrek % 71ko polarizazio indizea ematen digu, lehia dinamika are zentrifugoago bat berresten duen datua. Hori horrela, PP (+0,7), C's (+0,8), PSE-EE (+0,2) eta Podemosen (+0,6) boto-emaileek beren burua baino espainolista goak ikusten dituzte alderdi horiek; aldiz, PNV (-0,6), IU (-0,4) eta EHBren (-0,3) boto-emaileek posizio abertzaleagoetan kokatzen dituzte beren alderdiak, eta aldakortasun handiago bat ere eragin dezake horrek (ikus 7. grafikoa).

**Gráfico 7: UBICACIÓN DE LOS PARTIDOS VASCOS POR SUS VOTANTES Y AUTOUBICACIÓN DE ÉSTOS EN LA ESCALA DE NAC. VASCO / ESPAÑOLISMO (EEGG-15)**



Euskobarómetro, Enero 2016

## **2016ko URTARRILEKO EUSKOBAROMETROA**

**Egilea:** UPV/EHUko Zientzia Politikoko Sailaren EUSKOBAROMETROA taldea. *Francisco J. Llera Ramo* irakasleak zuzentzen du; *José M. Mata*, *Carmelo Moreno* eta *Alfredo Retortillo* irakasleek osatzen dute; eta, *Rafael Leonisio*, *Jonatan García* eta *Soña Uhrinová* ikertzaileen laguntza teknikoa jasotzen du.

**Landa lana:** Banakako elkarrizketak, CPSren landa sareak etxez etxe egindakoak galdetegi egituratu baten bidez, 2015eko urtarrilaren 19tik 31ra.

**Unibertsoa:** Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

**Laginaren tamaina:** Etxeetan egindako 600 inkesta.

**Laginaren diseinua:** Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT**en metodologiaren arabera, 21 udalerritako (2 Araban, 9 Bizkaian eta 10 Gipuzkoan) 30 errolda sekzioetan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu diren, adin eta sexu kuoten arabera.

**Laginaren errorea:** % 95eko konfiantza mailarako eta  $p = q = 0,5$  biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako  $\pm$  % 4,08 da.

**Igotzaileen kalkulua:** Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTAT**ek 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta.

Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktorioa erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.



**ENERO 2016** **EUSKO BAROMETRO**  
Estudio periódico de la  
opinión pública vasca

